AGIRIA, EUSKO LABEL ETA KALITATE ZIURTATUAREN BESTE BEREIZGARRI BATZUK DITUZTEN PRODUKTUAK SUSTATZEKO 2025eko EGUTEGIA DISEINATU, OSORIK EGIN ETA INPRIMATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKOA

1.- SARRERA

HAZI Fundazioak bere jardun-esparruan lehiakortasuna, jasangarritasuna eta berrikuntza bultzatzea eta sustatzea du xede eta helburu. Jardun-esparru horrek lehen sektorea (nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta basogintza), landa-ingurunea, itsasertz-ingurunea eta elikagaien industria hartzen ditu. Horien balioa areagotu nahi da xede eta helburu horiek betez, eta natura- eta kultura-ondarea zaindu.

Urtean zehar Hazi Fundazioak hainbat sustapen-ekintza egiten ditu Eusko Label eta Euskadiko kalitate bereiztuaren beste bereizgarri batzuk dituzten produktuak sustatzeko, eta egutegia da horietako bat, jada sektoreko kontsumitzaileek, ekoizleek eta erakundeek espero duten klasiko bat baita.

Almanakak 4 informazio mota ematen ditu batera:

- Egutegia: jai-egunak, santuen izendegia, ilargiak -2 aldaera- eta tenporak
- Argazki erakargarriak.
- Ildo nagusia: gure sektorearekin lotura duen gairen bati buruzko alderdi didaktikoa.
- Kalitate ziurtatuaren bereizgarria duten produktuei buruzko informazioa: Eusko Label, Eusko Labelekin egindakoak, Euskal Baserri, Jatorri-deitura eta Produkzio Ekologikoa.

Inprimatu ohi diren egutegietatik % 73 Eusko Labelen erregistratutako harategietan banatzen dira.

Mahai gaineko egutegien 1.000 ale ere egingo dira lizitazio honen barruan, horma-egutegiaren argazkiak, informazioa eta estilo grafiko berberarekin.

2. PLANTEAMENDUA

Kontratuaren helburua da horma-egutegia eta mahai gainekoa oso-osorik egitea; hau da egutegiaren, diseinua egin, beharrezkoak diren argazkiak eta testuak landu, maketazioa, inprimatzea eta euskal geografiako hiru puntutan entregatu.

a) **Diseinua:** hasieratik, egutegiak urtero Euskadiko landa eta itsasertzeko eremuari lotutako gai zehatz bati heldu dio. Gaiak askotarikoak izan dira: euskal baserrien arkitektura, euskal dantzak, herri-kirolak, sektorea irudikatzen duen artea, ibilbideak, tresna tradizionalak, paisaia-tipologiak, lehen sektoreko lanbideak, gizarteari egiten dion ekarpena… Azkeneko egutegia esteka honetan ikus daiteke: https://euskolabel.hazi.eus/wp-content/uploads/EGUTEGIA-2024.pdf. Egutegiaren dibulgazio izaerak egin du egutegia erakargarria izatea zalantzarik gabe. Aldi berean, kontuan eduki behar dugu egutegia publizitaterako elementua dela; hortaz, ezinbestekoa da gure markak erakustea aukeratutako gaiari lotuta.

b) Testuak eta argazkiak lantzea: Argazkiek argitaragabeak izan behar dute, bereizmen xehekoak, eta lizitazioan aipatutako egutegirako bereziki eginak. Hazik eskubidea izango du aipatutako irudi eta testu horiek beste komunikazio-elementu batzuetan erabiltzeko.
Testuak ele bitan joango dira eta enpresa adjudikazioduna arduratuko da testu horiek idazteaz eta behar bezala itzultzeaz.
Almanaka bukatu eta gero, agentzia adjudikaziodunak bereizmen xeheko argazkiak Haziri emango dizkio exekuzio-dokumentuarekin batera.

c) Maketazioa: Maketak aurretik aipatutako elementu guztiak izango ditu (jai-egunak, santuen izendegia, ilargiak -2 aldaera- eta tenporak). Informazio hori enpresa adjudikaziodunak lortu beharko du.
Bereziki azpimarratu nahi dugu ilargien irudikapen grafikoaren garrantzia: goranzko eta beheranzko ilargia, alde batetik, eta ilberria, ilgora, ilbetea eta ilbehera, bestetik.
Kontuan izan behar da beste egutegi batzuetan ikusi ohi diren ilargien irudikapenek copyright dutela.

d) Horma-egutegia inprimatzea:

- <u>Ezaugarri teknikoak:</u>
  Hormako egutegiak, 24 orrialde + azala 4+4 /245 x 340 mm (EIB 250 eta 150 gm)
- <u>Amaierako tamaina itxita:</u>
  245 mm zabal x 340 mm altu
  340 mm zabal x 245 mm altu
- <u>Inprimaketa:</u>
  Azala, 4 orrialde, kuatrikromia, aurrealdea eta atzealdea
  Barrualdea, 24 orrialde, kuatrikromia, aurrealdea eta atzealdea
- <u>Papera:</u>
  Azala, paper iztukatu industrial distiratsua 250 gr/m2-koa
  Barrualdea: paper iztukatu industrial distiratsua 150 gr/m2-koa
  Egutegiaren bukaerako pisua 198 g-koa izango da gutxienez.
- <u>Akabera:</u>
  Azala: “Plast Distiratsua” motako plastifikatua.
  Atzealdea: “Plast Distiratsua” motako plastifikatua. Plastifikatu mota horrek azala sendotu egiten du eta horman zintzilikatzeko zuloa (egutegirako ezinbestekoa da) urratzea saihesten du.
- <u>Koadernaketa:</u>

Grapa eta zintzilikatzeko zulo bat.

- <u>Paketatzea:</u>
  Haziren logotipoarekin pertsonalizatutako kutxetan, 50naka paketatuta.
- <u>Kopurua:</u>
  68.000 ale

e) Mahai gaineko egutegia inprimatzea (14 lamina):

- Ezaugarri teknikoak:
  Mahai gaineko egutegiak: 14 lamina + oinazpikoa wiro-arekin
- Orrialde-kopurua
  28 orrialde gehi oinazpikoa
- Inprimaketa:
  Oinazpikoa = 4+0; Barrualdea: 4+4
- Tamaina
  Lamina = 140 x 150 mm; Oinazpikoa: 140 x 380 mm
- Papera:
  Oinazpikoa: kartoi mehe grafiko iztukatua, alde bakarra, 400 gr.
  Laminak: couche matea, 200 gr.
- Koadernaketa:
  Wire-o
- Kopurua:
  1.000 ale

f) **Entrega:** 2024ko azaroaren 14tik 18ra entregatuko dira, Hazirekin baieztatu ondoren. Inprimatutako egutegiak hiru multzotan banatu eta hiru helbide desberdinetan entregatuko dira: Horma-egutegiaren 1.500 ale eta mahai gaineko 300 ale inguru Muntsaratz dorrean (Abadiño); horma-egutegiaren 1.000 ale eta mahai gaineko 700 ale inguru Haziko bulego nagusietan (Arkauti); eta azkeneko entrega, eta handiena, horma-egutegiena esklusiboki, banaketa egingo duen enpresan (*).

g) **Irudi-eskubideak eta esker onak:** Aurrekontuan gastu guztiak sartu beharko dira, horien artean, irudi-eskubideak eta esker onak, hainbat lankidetza edo egutegia egitearen ondoriozko beste kontzeptu batzuk ere.

*** Banaketari buruzko ohar garrantzitsua:**

Entregarako behin-betiko kopuru eta helbideak entrega aurreko egunetan zehaztuko dira. Hala ere, aurreratzen dugu entrega horietako bi Hazik Abadiño eta Arkautin dituen egoitzetan egingo direla. Bertan ez dago biltegiko arduradunik edo baliabide logistikorik deskargatzen laguntzeko; beraz, eskuz deskargatu beharko da, eta enpresa adjudikaziodunaren kontura egingo da.

Hirugarren entrega, handiena, enpresa banatzailean izango da. Enpresa adjudikaziodunak entrega koordinatu beharko du, kontzeptu horrengatik inolako aparteko gasturik sor ez dadin.

3.- NABARMENDU BEHARREKO MEZUAK

2024ko egutegirako aukeratutako gaia alde batera utzita, mezuak positiboak izango dira beti, eta lehen sektoreak gizarteari egiten dion ekarpena azpimarratu beharko da.

Bestalde, testuetan zein irudietan, kontuan izan beharko da Hazi aktiboki ari dela lanean **Emakume Nekazarien Estatutua** zabaltzen. Horren helburua da, alde batetik, lehen sektorean gizonezkoen eta emakumezkoen artean dagoen aldeari aurre egitea, eta, bestetik, emakumezko langileen ahalduntzea eta ikusgai bihurtzea, bi generoen arteko oreka handiagoa izan dadin.

Gainera, Eusko Jaurlaritza **gastronomia eta elikaduraren plan estrategikoa** garatzen ari da. Plan horrek Euskadin giza garapena, ekonomia-hazkundea eta hazkunde adimenduna sustatzea du helburu. Planaren oinarrietako bat nekazaritzako elikagaien produkzioa da eta beste sektore batzuekin harremanetan dago, besteak beste, gastronomiarekin, turismoarekin, kulturarekin eta ekonomiarekin. Garrantzitsua da gizarteari helaraztea bertako eta kalitateko produktuen garrantzia eta kontsumitzaileek modu arduratsuan erosteak Euskadiren ekonomia-garapenean duen eragin positiboa.

Bestalde, Hazik publizitate-kanpaina bat aktibatuta dauka Eusko Label zigiluak animalien ongizatea bermatzen duela jakinarazteko. Animalia hauei eragiten die, zehazki: bildotsa, haragitarako eta esnetarako behia, oilo eta txita erruleak eta txerriak. Eusko Labelek kalitatezko elikadura, bizitza osasuntsua eta, oro har, Animalien Osasunaren Nazioarteko Erakundearen animalien ongizaterako 5 eskakizunak bermatzen ditu.

Honako hauek dira helarazi beharreko ezaugarri nagusiak:

- Animalien ongizatea.
- Euskadiren jasangarritasuna /Ekonomia-hazkundea.
- Sektorearen modernizazioa eta berrikuntza.
- Jatorria.
- Goi-mailako kalitatea, organoleptikoa zein nutrizionala.
- Jateko erakargarria izatea/zaporea.
- Kontrola eta segurtasuna (kontrolen zorroztasuna).
- Marka eta produktu bakoitzaren berezitasuna eta nortasuna.
- Erakunde-bermea.

Horrez gain, interesgarria izango litzateke euskal kontsumitzaileek modu arduratsuan erosteak gure lehen sektoreari egiten dizkion ekarpenak azpimarratzea.

Azkenik, atzeko azaleko bi azkeneko orrialdetan Euskadiko kalitate marka ofizialen laburpena egingo da. Orrialde bikoitzaren diseinuak aurreko urteetakoa ez bezalako diseinua izan beharko du, ezagutzera eman behar diren produktu guztiak irudikatzeko. 2025eko egutegirako 2024an zehar gertatzen diren aldaketak hartu beharko dira kontuan.

4. EGUTEGIAK EGITEKO ETA ENTREGATZEKO EPEA

Beste urte batzuetan entregarako aproposa izan den egutegia edo timinga proposatzen dugu; izan ere, egutegi horrekin garaiz heldu gara entregarako markatutako epera, hau da, azaroaren 14a baino lehenagora, lehen egutegietarako, eta azaroaren 18ra, gainerako aleetarako. Hala ere, bi data horiek izan ezik, enpresa adjudikaziodunak bere timinga proposatuko du.

Data garrantzitsuak:

Urriak 16: beharrezkoak diren fitxategi informatiko guztiak inprimategira eramango dira.

Urriak 28: kolore-probak aurkeztuko zaizkio Haziri, azken zuzenketak egiteko.

Urriak 31: probei oniritzia emango zaie.

Lana entregatzea:

Azaroak 14: lehenengo ale osoak entregatuko dira.

2024ko azaroaren 18a: lana behar bezala bukatuta entregatuko da, 50 aleko kutxetan eta hiru helbidetan.

5. KONTRATUA GAUZATZEKO HIZKUNTZA BALDINTZAK

Kontratu honek hizkuntza bien ofizialtasunaren araubidea bete behar du. Hortaz, bi hizkuntza ofizialak erabiltzea kontratua gauzatzeko ezinbesteko baldintza da, eta hori ez betetzeak kontratuko edozein klausula ez betetzean oro har aurreikusitako ondorioak izango ditu.